

VENTOSA, V.J. (2016)

*Didáctica de la participación. Teoría, metodología y práctica. Madrid: Narcea.*

Parte hartzearen gaia, tradizionalki, ez da oso jorratua izan eta, jorratu den horietan, Psikologia arlotik (batez ere Psikologia Soziala) eta Soziologiatik egin da. Liburu honen helburuetako bat parte hartzeak, aipatutako arlo horiekin ez ezik, hezkuntza ikuspegiarekin ere lotura estua duela erakustea da. Alde horretatik, gizartekoitasuna gizakiari dagokion berezko ezaugarria bada ere, bere garapena eta aplikazioa bakarrik testuinguru sozial egokietan egindako ikaskuntzaren bitartez eskura daiteke; horrek, ezinbesteanb, gizakia gero eta konplexuagoa den bizitzaren testuinguru ezberdinetan prestatzea eskatzen du.

Gizarte demokratiko ororen oinarria parte hartzea da. Alde horretatik, beharrezkoa da Parte hartzearen Didaktika eraikitzea, parte hartze hori helburu duen esku hartze eredu batetik abiatuz. Liburu honek parte hartzearen irakaskuntza-ikaskuntza prozesu arrazoitu bat ezartzeko oinarriak eskaintzen ditu; horretarako, liburuak erakusten dituen bost kapitulu bidez, Susperketa Soziokulturala baliabide egoki gisa aurkezten zaigu. Lehenengo kapituluak parte hartzearen mapa kontzeptuala ikuspegi soziopedagogiko batetik osatzen duten oinarriak aztertzen ditu.

Bigarren kapituluak, egungo pentsamendu-korronteak abiapuntutzat hartuta, Susperketa Soziokulturalaren errebisio eta eguneratze teorikoa eskaintzen du. Hirugarren kapituluak parte hartzearen didaktika baten garapenerako oinarriak erakusten ditu; horretarako, soziopedagogiaren, biologiaren, neurozientzien eta psikologia positiboaren ekarpenak baliatzen dira.

Laugarren kapituluak lidergo sozial parte hartzailearen ezaugarriak jorratzen ditu; lidergo era hau, gainontzeko lidergoetatik aldenduz, parte hartzearen hezitzaileek (suspertzaile soziokultural berriak) erakutsi behar dituzten ezaugarriei erantzuteko gai da. Liburuaren azken kapituluak etorkizuneko erronkak jorratzen ditu. Bertan, esku hartze sozioedukatio era berri bat aurkezten da, neuroanimazioa delakoa; horren bitartez, suspertze soziokulturalaren oinarriak neurozientiaren egungo eta etorkizuneko ekarpenei egokitzen zaizkie.

*Igor Camino Ortiz de Barrón*